# BERMEOTAR GUDARI ETA MILIZIANOEI OMENALDIA
# HOMENAJE A LOS GUDARIS Y MILICIANOS DE BERMEO

**2022-06-18 Bermeo 18-06-2022**

***Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari***

Sailburuok, Bermeoko alkatea, herri agintari eta ordezkariok, bermeotarrok, eta baita inguruetatik etorritako guztiok jaun andreok, egun on!

Ohorea da niretzat gaur, hemen, bermeotar eta inguruko gudari eta milizianoak omentzea; are gehiago, haietako bat, aurrean izanda. Noiz eta Juan Azkarate bermeotar itsas-gudariak 100 urte betetzen dituen egunean.

Euzkadiko Guda-ontzidia-ren gudaria izan zinen. Hamalau urteko mutil-koskorra baino ez zinela, halabeharrak sasoia baino lehen nagusitu zintuen, seguruenez.

Gerrak heriotzarekin batera, erbestea, kontzentrazio esparruak, kartzela ekarri zituen… erraz esaten da! Baina zenbat sufrimendu ezkutatzen duen horietako hitz bakoitzak, holako egoera batean pasatako egun bakoitzak.

Gerra ezagutu ez dugunok, nekez irudikatu genezake zuen begiek ikusi zutena, gerraren krudeltasuna, gerrak dakarren miseria.

Horren aurrean gure esker ona Juani, bermeotar gudari eta miliziano guztiei. Faxismoaren aurrean Gobernu demokratiko baten alde, bakearen, giza eskubideen eta askatasunen alde egin zenuten guztiagatik.

Gugan zaudete eta daude, gure memoria kolektiboaren parte zarete. Atzera begiratu eta haien, zuen, ahalegina eta konpromisoa harrotasun iturri da guretzat.

Reconocemos el compromiso de toda una generación, que es motivo de orgullo para todas y todos nosotros.

Hace unos días nos encontramos en Gamiz-Fika, en los montes que albergaban el Cinturón de Hierro. Hoy nos reunimos junto al mar, recordando a quienes aquí lucharon. Cumplimos así un deber institucional y social, un deber político y ético: restituir la verdad y la dignidad de quienes vivieron y sufrieron una guerra injusta.

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus

Hoy instituciones y sociedad vamos de la mano, en este acto de recuerdo, reconocimiento y homenaje. Homenajeamos a gudaris y milicianos bermeotarras. Reconocemos a quienes fueron itxas-gudariak, gudaris de la mar. Recuperamos la heroica trayectoria de la Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi.

Recordamos aquellos bous artillados, aquellos bacaladeros, pesqueros armados de forma improvisada desde los que nuestros arrantzales supieron, con heroísmo, hacer frente a una armada profesional y fuertemente equipada.

Siempre he pensado que, en cualquier otro país, la batalla de Matxitxako habría sido reflejada en novelas y películas. En Euskadi tenemos pendiente transmitir este heroísmo a las nuevas generaciones.

Sí debemos reconocer el encomiable trabajo del investigador Juan Pardo, prematuramente desaparecido. Su trabajo ha permitido que la Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi, puesta en marcha por el Gobierno del Lehendakari Agirre, no haya caído en el olvido.

Mil gracias Juan Pardo y Matxitxako Elkartea por haber sabido mantener la heroica llama de quienes fueron “gudaris de la mar”.

La memoria, que reavivamos hoy, nos debe servir para comprender todo lo que podemos perder cuando perdemos la democracia. Perdimos la guerra, la democracia; pero sentimos orgullo reconociendo el esfuerzo de aquellas personas que, en las peores circunstancias, defendieron la convivencia democrática.

Hoy, la sociedad vasca sabe que sigue siendo necesario comprometerse con los valores democráticos y la defensa de los derechos humanos. Hacerlo, es comprometerse con la convivencia de nuestro País.

Printzipio demokratikoekin bat egiten dugunean eta haien defentsarekin konprometitzen garenean, gure gizartearen egungo bizikidetza sendotzen dugu, gure gizartea totalitarismoetatik urruntzen laguntzen dugu.

Konpromiso horrek egiten gaitu, 85 urte beranduago, izan zinetenaren oinordeko eta datozen belaunaldien oinarri.

Katea ez da eten. 85 urteren ostean, berriz, beti, eskerrik asko!

Eskerrik asko eta zorionak Juan Azkarate jauna!

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus